

LEKUALDATZE LEHIAKETARAKO ARGIBIDEAK

2012ko azaroaren 6tik 22ra, biak barne, eskaerak bete eta merezimenduen dokumentazioa (beharrezkoa denean) aurkeztu beharko da. Aurtengoa estatu mailakoa da. Prozesu honetan errazago parte hartzeko asmoz, irakasle.net eta hezkuntza departamenduko orrialde nagusian **gida** bat publikatuko dute.

Lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko, irakasle-gunean **eskaera elektronikoa** bete beharko da, Interneteko helbide honetan: <http://www.irakasle.net>. Norberaren klabeak sartuta iritsiko zarete irakasle-gunera, eta bertan lekualdatze lehiaketan klikatu eta listo, aplikazioan sartuko zarete. Norberaren klabea gogoratzen ez baduzue, gune horretan bertan telefono kontaktu bat dago, bertara deitu eta arazoa konponduko dizuete.

MEREZIMENDUAK: NORK ETA NOLA

2010/2011 edo 2011/2012 ikasturtean lekualdatze lehiaketan **parte hartu** zuten eta **merezimendu gehiagorik ez duten langileek**, aukera izango dute *“parte hartutako azken lekualdatze lehiaketan izandako puntuazioa mantentzen”*. Hortaz ez dute delegaritzan ezer aurkeztu beharko. Lekualdatze hauetatik aurrera **meritu gehiago egin badituzte**, *“merezimendu berriak gehitzea”* aukeratu beharko dute. **Baremazioarekin ados ez dagoena edo aurretik egindako merituak aurkeztu nahi duenak** dokumentazio guztia aurkeztu beharko du, *“baremazio berria”* eskatuz.

2010/2011 edo 2011/2012 ikasturtean lekualdatze lehiaketan **parte hartu ez dutenek** dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute.

2011/2012 ikasturtean **praktiketako funtzionarioak** zirenak, dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute.

Aurten praktiketako funtzionarioak direnak ez dute dokumentaziorik aurkeztu behar.

Lekualdatze lehiaketaren eskaera behin beteta eta ONARTUTZAT emanda, aplikazio informatikoan inpreso bat lortu dezakezue, eta horrekin batera merezimenduen dokumentazioa aurkeztu beharko da, epe barruan, delegaritzetan. Horretarako **“dokumentazioa entregatzeko aldez aurreko hitzordua”** eskatu beharko da irakasle.net helbidean, azaroaren 2tik aurrera.

PARTEHARTZAILEAK

1. **PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOEK** derrigorrez parte hartu behar dute, eta oposaketak gainditu dituzten **espezialitatean** hautatu beharko dute beraien **lehenengo destinoa**. Ikasturte honetan lanean ari diren Lurralde Historikora atxikituta daude; beraz, parte hartzen ez badute edo eskaera osotasunean betetzen ez badute, behin-betiko destino **“FORZOSOA”** ematea posible da, **dagokien Lurralde Historikoan**.
2. **BEHIN-BEHINEKO FUNTZIONARIOEK**, egoera berdinean daude: **Derrigorrez parte hartu behar dute, eta oposaketak gainditu dituzten espezialitatean** hautatu beharko dute beraien lehenengo destinoa. Lurralde Historiko batera lotuta daude eta hauen lehenengo destinoa ere **“FORZOSOA”** izan daiteke.
3. **SUPRIMITUTAKO FUNTZIONARIOEK** suprimituak izan diren zonaldean lehentasuna izango dute. Gainontzeko zonaldeetan ez dute inongo lehentasunik.
4. Lekualdatze lehiaketa, urtero bezala, **“itsua”** izango da; hau da, **ez dakigu zeintzuk izango diren esleituko diren plazak**; beraz, zuen nahien arabera bete eskaera zerrenda. Horretarako, denbora hartu, eta lasaitasunez eta tentuz bete eskaera orria.
5. Lehiakideek erreklamazioa aurkeztu ahalko dute **behin behineko erresoluzioa** aurkeztu eta hurrengo bost lan egunetan. **Borondatez lehiatzen direnak, uko egin diezaioke** behin behineko erresoluzioari. Uko egiten dutenek **hautatu dituzten plaza guztiei uko egiten diote** era honetan.
6. **Praktiketako funtzionarioak eta destino definitiboa ez dutenek... adi!!** Aplikazioak, bukaeran, Lurralde Historikoa esleitzeko (20 Gipuzkoa, 48 Bizkaia eta 01 Araba) aukera ematen du. **SOILIK HAUTATU EZAZUE BESTE LURRALDE HISTORIKOA, BENETAN BESTE PROBINTZI BATEAN PLAZA DEFINITIBOA LORTZEKO GOGOA BADUZUE.**

Lekualdatze-lehiaketa prozesuari buruz informatzeko, hainbat bilera egingo ditugu karrerako eta praktiketako funtzionarioei zuzenduak. Bilerak ELAren egoitzetan izango dira ondoren adierazten diren hiru egun eta orduetan:

AZAROAREN 7an, asteazkena, GASTEIZEN arratsaldeko 5,30tan. (Manuel Iradier, 16)
AZAROAREN 12an, astelehena, DONOSTIAN arratsaldeko 5,30tan. (Consulado, 8)
AZAROAREN 13an, asteartea, BILBON arratsaldeko 5,30tan. (Barrainkua, 13)

RESUMEN DEL CONCURSO DE TRASLADOS

Del 6 al 22 de noviembre, ambos inclusive, se deberá presentar la documentación de méritos (si fuera necesario) y cumplimentar la solicitud. El concurso de traslado sera de ámbito estatal. A fin de facilitar la participación en este proceso, se publicará en la pagina del departamento así como en irakasle.net una **guía** para el buen desarrollo del proceso.

Dicha participación en el concurso de traslados se formalizará única y exclusivamente cumplimentando la solicitud electrónica disponible en el entorno irakaslegunea, al que se accede con las claves pertinentes desde la dirección de internet <http://www.irakasle.net>. Si no se dispone de las claves, en esa misma pagina aparece un teléfono de contacto desde donde os resolverán el problema.

QUIÉN Y COMO DEBEN PRESENTARSE LOS MERITOS

Las personan que **participaron en el concurso de traslados 2010-2011 o 2011-2012** y no hayan hecho nuevos méritos en ese periodo de tiempo, no deberán presentar ninguna documentación, y se deberá solicitar en la aplicación "*Mantener la puntuación del último concurso de traslados*". En caso de haber **conseguido más méritos** en este periodo de tiempo, podrán "*añadir nuevos méritos*". En caso de no estar de acuerdo con la baremación o en caso de querer aportar méritos anteriores a dichos concursos de trasladado, se deberá aportar nuevamente toda la documentación y solicitar "*nueva baremación*"

Las personas que **no participaron en los concursos de traslados 2010/11 o 2011/2012**, deberán presentan la documentación de los méritos.

Los funcionarios que en el concurso de traslados **2011-2012 estaban en practicas**, deberán presentar toda la documentación.

Los funcionarios que este curso están en prácticas no deben entregar ninguna documentación.

Las personas que deban entregar la documentación de méritos, una vez cumplimentado la solicitud, y después de dar el "VISTO BUENO", podrán obtener un impreso desde la aplicación informática, y junto con este documento se deberá entregar en las delegaciones correspondientes los documentos justificativos para la valoración de los méritos. Para ello, se deberá solicitar en la dirección de Internet irakasle.net "**cita previa para entrega de documentación**", desde el día 2 de noviembre.

PARTICIPANTES

1. **LOS FUNCIONARIOS EN PRÁCTICAS.** Están obligados a participar, y su primer destino definitivo será por la especialidad en la que obtuvieron plaza en las oposiciones. Están adscritos al Territorio Histórico en el que estén trabajando este curso. Por lo tanto, en caso de no participar, o no cumplimentarlo correctamente, se les podrá dar **una plaza forzosa** en dicho Territorio.
2. **LOS FUNCIONARIOS PROVISIONALES** están en la misma situación: **están obligados a participar** y su primer destino definitivo será por la especialidad en la que obtuvieron plaza en las oposiciones. Están adscritos a un Territorio Histórico y también se les puede dar una plaza "FORZOSA".
3. **LOS FUNCIONARIOS SUPRIMIDOS** también están obligados a participar, y tendrán preferencia en la zona de referencia. En el resto de las zonas participarán sin ninguna preferencia.
4. El concurso de traslados será "ciego", como todos los años. Es decir, no sabemos cuáles son las plazas que se ofertarán; por eso, os recomendamos que hagáis la solicitud partiendo de vuestros intereses, con tranquilidad y con tiempo.
5. Las/os concursantes podrán presentar **reclamaciones a la resolución provisional** en el plazo de 5 días hábiles a partir del siguiente día de su exposición. **Las/os concursantes voluntarias/os** podrán, en este mismo plazo, presentar **renuncia total** a su participación en el concurso de traslados, entendiendo que la misma **afecta a todas las peticiones** consignadas en su instancia de participación.
6. **FUNCIONARIOS EN PRÁCTICAS Y SIN DESTINO DEFINITIVO ¡¡CUIDADO!!** La aplicación deja elegir en su última página, el Territorio Histórico que queramos (20 Gipuzkoa, 48 Bizkaia y 01 Araba). **ÚNICAMENTE ELEGIR OTRO TERRITORIO HISTÓRICO DIFERENTE AL VUESTRO SI ESTÁIS DISPUESTOS A POSEER UNA PLAZA DEFINITIVA EN OTRA PROVINCIA.**

Para informar sobre los concursos de traslados, vamos a realizar varias reuniones dirigidas a funcionarias/os de carrera y en prácticas, con el siguiente calendario en las sedes de ELA de las siguientes poblaciones:

7 de noviembre, miércoles, 17:30 Gasteiz (Manuel Iradier, 16)

12 de Noviembre, lunes, 17:30 Donostia (Consulado, 8)

13 de noviembre, martes, 17:30 Bilbao (Barrainkua, 13)